



Hamarkada bat, algara artean

Tarte ederra igaro dute Xirimiri lepo bete duten herritarrek, Irakurle Txokoak egindako bertso bazkari literarioan / 9

TXINTXARRI

Aretoa bete du aurtengoak ere

Amaitu berri da XVII. Itsaspeko Zinema Zikloa, eta, aurreko aldietako bezala, aurtengoak ere arrakastatsua izan da / 5

"Kontzientziatu eta ospatzeko" ekimenak egingo dituzte Martxoaren 8aren bueltan / 2

65 urtetik gorako herritarrentzako 'Enredate' ekimena aurrera eramaten ari da Gurutze Gorria / 4

Independentziara eguna ospatuta, apirileko gazte topaketan jarri du fokua herriko Ernai-k / 7

Bertso afari ederra aurrera eraman dute Earra! bertso eskolako nahiz Faktoriako kideek / 8

Zakua bete domina ekarri dute herriko atleta gazteek Euskadiko Txapelketatik / 10

Kirolarien indar, gogo eta ilusioz bete izan da Gurgil Aulkiko Euskadiko Eslalom Txapelketa / 13



600 85 75 86 
www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Edonora edaria eta janaria eramateko!



Kafea edo tea egiteko



Janaria eramateko



Berdintasuna lortzea, "guztion ardura"

"Hausnartu, kontzientziatu eta ospatzeko ekimenak" antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak, Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan. Martxoaren 1ean hasiko da egitaraua eta 18an bukatu. Berritasun nabarmenena emakume elkartekideen topaketa izango da

Txintxarri

Udaletik adin guztietako emakumeentzako zein gizonentzako egitaraua prestatu dutela nabarmendu du Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Nuria Fernandezek: "Berdintasuna erdiesteko lana egitea guztion ardura da; bizitzako esparru guztietan landu behar dugu". Gauzak horrela, "hausnartu, kontzientziatu eta ospatzeko ekimenak" aurrera eramango dituzte martxoaren 1etik 18ra, "lortzeko asko dugun arren, orain arte egin ditugun konkistak balioan jarri behar ditugulako". Jarduerak banan-banan azaldu aurretik, Fernandezek berak eta agerraldian alboan izan dituen Agustin Valdivia alkateak eta Sexuen Elkarbizitazarako Emakumearen Zentroko koordinatzaile Maite Iglesiasek zehaztu dute beharrezkoa izango dela aurrez izena ematea, egoitza horretara bertaratu edo 943-36 39 58 telefono zenbakira deituta.

Herritar guztiak antolatutako ekimenetan parte hartzera animatu ditu alkateak eta berretsi du berdintasunarekiko udalak duen konpromisoa. "Oraindik lan asko egin behar dugu, azkenaldian prentsan-eta ikusi ditugun ikerketek diotelako gero eta gizon gazte gehiago beldur-



Ezker-eskuin: Nuria Fernandez, Agustin Valdivia eta Maite Iglesias. TXINTXARRI

tuta eta erasotuta sentitzen direla feminismoaren aurrean, eta horrek ezin du horrela izan: parekidetasuna da egoera bidegarri bakarra".

MARTXOAK 1-8

LASARTE-ORIA Erakusketa

Emakumearen Nazioarteko Eguneko kartel lehiaketako lanen erakusketa. Lanak aurkezteko epea gaur (hilak 28) amaituko dutela ohartarazi dute udal ordezkariak. *Emakumearen zentroa, goizez eta arratsaldez.*

MARTXOAK 6

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Emakumearen Nazioarteko Eguneko kartel lehiaketako sariak banatuko dituzte. Irabazlearen lana erabiliko dute 2026ko kartela ilustratzeko. *Emakumearen zentroa, 18:00etan.*

MARTXOAK 7

LASARTE-ORIA Antzerkia

La maja y la mona, menudo cuadro antzeulanaren emanaldia aurrera eramango dute Aroa Berrozpe eta

Susana Soletok aktoreek. Sarrera doakoa da.

Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Afaria

Afariko menuak 32 euro balio ditu eta bertaratzeko direnek bigarren platera aukeratu beharko dute aurretik.

Casa Humada jatetxea, 21:30ean.

MARTXOAK 8

LASARTE-ORIA Maratoia

Zunba maratoia egingo dute pare bat orduz. Amaitzean, more koloreko botilak banatuko dizkiete parte hartzen dutenei.

Okendo plaza, 10:00etan.

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Emakumearen Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea egingo dute.

Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Haurrei zuzendutako *Amama* antzeulanaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

MARTXOAK 9

LASARTE-ORIA Kontzertua

Zero Sette Akordeoi Orkestrako kideek kontzertu bat emango dute, emakume konposatzaileen lanekin.

Antonio Mercero aretoa, 12:30ean.

MARTXOAK 12

LASARTE-ORIA Zinema

Biyak Bat adineko egoitzako kideekin zineforuma aurrera eramango dute. "Feminismoa eta transexualitatea bezalako gai garrantzitsuak" landuko dituzte.

Biyak Bat egoitza, 17:00etan.

MARTXOAK 13

LASARTE-ORIA Antzerkia

Y aquí seguimos antzeulanaren emanaldia egingo dute aurrera, eta ondoren, lan horri buruzko solasaldi bat. Sarrera doakoa da.

Antonio Mercero aretoa, 19:00etan.

MARTXOAK 14

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean *Querer* filma emango dute. Sarrerek, 6 eurotan.

Kultur etxea, 20:00etan.

MARTXOAK 15

LASARTE-ORIA Tailerra

Autodefentsa feminista tailerra egingo dute, nerabeentzat, euskaraz. *Emakumearen zentroa, 10:00-14:00.*

MARTXOAK 16

LASARTE-ORIA Topaketa

Emakume elkartekideen topaketa egingo dute: **11:00etan**, txupinazoa eta agurra. **11:15ean**, kalejira eta pintxo-potea, Oaintxe in deul txarangarekin. **13:30ean**, bakarrizketa, Bea Egizabalen eskutik. **14:30ean**, bazkaria. **17:00etan**, karaokea. *Herrian barrena, egun osoan.*

MARTXOAK 18

LASARTE-ORIA Kontzertua

Animalia distopikoak liburuarri buruz hitz egingo dute Esti Martinez Diaz de Cerio egilearekin. Irakurle txokoarekin lankidetzan.

Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

Alfonso Morcillo zena omendu dute, bere jaioterrian

Donostiako Udaltzaingoko sarjentu ohiaren omenezko plaka eta monolito bana jarri dituzte Medellin herrian

Txintxarri

1994ko abenduaren 15ean, Lasarte-Oriaren zena etxetik irten eta lanera zihoan Alfonso Morcillo, ETako kide bat atzetik hurbildu eta bizkarretik tiro egin zionean. Bertan akabatu

zuen. Donostiako Udaltzaingoko sarjentua zena Medellin (Badajoz, Extremadura) herrikoa zen jaiotzez eta hiru hamarkada geroago omenaldia egin diote jaioterrian: kaleko plaka eta monolito bana jarri dizkiote.

Senide eta ordezkari politiko ugari parte hartu zuten hilaren 21eko ekitaldian, Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak barne. "Gizon on bat hil zuten eta historiatik ezabatu nahi izan zuten, baina ez zuten lortu. Betebehar etikoa dugu Alfonsoren oroimena bizirik mantentzeko", adierazi zuen. Medellingo Udaleko oho-rezko liburuan sinatu eta udalak terrorismoaren biktimekiko duen "konpromisoa" berretsi: "Min eta odolez betetako kale eta plazak besterik ez zituen lortu ETak".



Morcilloaren aintzatespen ekitaldia, Medellinen. LASARTE-ORIAKO UDALA

Udalerria euskalduntzen jarraituko dute

"Lasarte-Oriako bizilagun komunitateak dituen premiak asetzen lagunduko duten interes publikoko jarduerak" sustatzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute udalak eta Ttakun KEk. Zazpi programa garatzeko 210.839 euro jasoko ditu kurtso honetan

Txintxarri

"Akordio honek gure konpromisoa indartzen du euskara Lasarte-Oriako eguneroko bizitzan normalizatzeko", azpimarratu du Agustin Valdivia alkateak. "Errazten dugu hizkuntza hori hainbat eremutan egotea, erabiltzeko espazio eta aukera gehiago eskainita". Antzera mintzatu da udaleko Euskara zinegotzi Estitxu Alkorta ere: "Elkarlan honi esker, herritarren hainbat sektoretara iritsi gaitezke, haurtzarotik helduarora arte; euskara sustatu dezakegu aisialdian, kulturean eta hezkuntzan".

Zentzu horretan, aurtengo ituneko berrikuntza nagusia Euskaraldiaren laugarren aldia antolatzea izango da. Hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa hori maiatzaren 15etik 25era aurrera eramango dute Euskal Herri osoan eta baita gure udalerrian ere.

Gaspe eta Amaraun klubak ere lagunduko ditu diruz udalak. Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrei "aisialdiko jarduerak erakargarriak" eskainiko dizkiete, euskaraz aritzeko ohitura indartzeko helburuarekin. Kuartilategiren bidez, helburu hori bera lortzeko lan egingo dute, baina Bigarren Hezkuntzan ari diren nerabeekin lan eginda, eremu informaletan hizkuntza



Udaleko eta Ttakun KEko ordezkariak, hitzarmena izenpetzen. TXINTXARRI

horretan hitz egin dezaten. Familiaren bidez euskara transmititzea izango da beste lanildoetako bat. Xede hori Guraso-Leku egitasmoaren bidez erdies-teko lan egingo dute eta ekimen ugari antolatuko dituzte Haur Hezkuntzan seme-alabak dituzten gurasoentzat. Solaskideren bitartez, aldiz, elkartuko dituzte euskaraz hitz egiteko ohitura eta erraztasuna ez duten herritarrek ezaugarri horiek berak dituztenekin. Bestalde, euskara sustatzeko alor garrantzitsuetako bat kultura dela sinetsita, *Euskara eta kultura, esku-*

tik egitasmoa ere garatuko dute, euskaraz izango diren kultura jarduerak egiteko.

Azkenik, TXINTXARRI aldizkaria babestuko dute, 1993ko urritik herrian gertatzen denari buruz euskaraz eta gertutasunez informatzen ari den herri komunikabidea. Zeregin hori paperezko astekariaren eta www.txintxarri.eus atari digitalaren bidez (inoizko datu onenak izaten ari da). Erakundeak 90.000 euro emango dizkio Ttakuni, hiru hamarkadako ibilbidea duen proiektua burutzen jarraitzea bideragarria izan dadin.



Jantzi dotoreak egin zituzten tailerrean. TXINTXARRI

Txantxoak eta beste pertsonaia asko, Inauteri asteburuan

Euskal Inauterietarako jantzien tailerrak eta kontzertu bufoak ireki dute programa oparo eta koloretsua

Txintxarri

Gaurtik (hilak 28) martxoaren 3ra arte ospatuko dituzte Inauteriak lasarteoritarrek. Irudimena dantzan jarriko dute mozorro koloretsuak erakutsita kaleetan: batzuek gai ofiziala erabiliko dute inspirazio iturri, *Disney*; beste batzuek, Sorgin Jaiak-ek proposatutako euskal ikus-entzunezkoak izango dituzte ardatz; eta, horretaz gain, Euskal Inauterien ospakizunean girotutako mozorroak ere ikusiko ditugu, gaur bertan etorriko baitira txantxoak udalerrira, gizakiekin urteroko ituna berritzera. Testuinguru horretan, festa horretarako arropak prestatzeko tailerrarekin ireki zuten egitaraua hilaren 26an: Ione Artola jostunaren eskutik txantxo jantziak nola egin ikasi zuten bertaratutakoek.

Hurrengo egunean, aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan,

kontzertu bufoa eman zuten Udal Musika Eskolako ikasleek. Mozorro koloretsuak soinean ziztuztela azken hilabeteetan landutako piezak erakutsi zituzten, bakoitzak bere instrumentuaren bidez.

Sardina ehortzi arte

Inauterietako egitarau osoa aldizkari honetako 15. orrian kontsulta dezakezue, *Agenda* atalean. Egun handia biharkoa izango da, goizetik iluntzera arteko festa giroan murgilduko delako udalerrria, aurtengo ospakizunean parte hartuko duten bost konpartsen eskutik: Biyak Bat, La Tribu, Intzak Parranda, Jalgune eta Sasoeta Sasoian.

Azken urteetan bezala, sardina ehortzitakoan amaituko dira Inauteriak. Martxoaren 3an egingo dute ekitaldi hori, 18:30etik aurrera, Okendo plaza-zatik hasita.



txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

MAiTE

MARTXOAK
8

Elkarrekin gara

ESTETIKA ARETOA

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mota ezberdinetako depilazioak
 - Solariuma
 - Manikura eta pedikura
 - Makillajea
- Betileen tindatzea eta "lifting"-a



Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45

Elkar akonpainatu eta saretzea sustatzeko

'Enredate' izeneko ekimenaren bigarren saioa aurrera eramán dute herriko Gurutze Gorriaren egoitzan. Proiektu horren helburua da 65 urtetik gorako pertsonak saretzea, horren bitartez, bakardade sentimendua murriztu eta gizarte isolamendua saihesteko

Maddi Zaldua

Enredate egitasmoaren saio bat zuzenean ezagutzeko aukera izan du TXINTXARRI-k. Mihise bana koloreztatzen harrapatu ditu aldizkariako kazetariak ekimenean parte hartzen ari diren erabiltzaileak: Aquilino Garcia, Primitivo Maneiro eta Pello Gallo. Kazetariaren bisitak, ordea, aztoratu egin du apur bat euren jarduna; lan horiek alde batera utzi eta berriketan hasi dira bisitariarekin. Kontatu diote elkar ezagutu eta saretzeko aukera ematen diela aipatu ekimenean parte hartzeak: "Gure istorioak kontatzen dizkiogu elkarri, baita txisteak ere, tar-teka; giro atsegina dugu, eta une



'Enredate' ekimeneko partaideak eta Gurutze Gorrikoa, aste honetako saioan. TXINTXARRI

alaia igarotzen dugu elkarrekin". Azpimarratu dute bakardadeari aurre egiteko egitasmo bikaina dela, eta gaineratu, eurekin dauden Gurutze Gorriko boluntarioek (Manuel De Cabo, Ainara Silva eta Ziortza San Millan) egiten duten lana ere balioan jarri behar dela. "Desiatzen" egoten dira asteartea heldu, elkar topatu eta saioa aurrera eramateko.

Esan bezala elkartu bezain laster pintura tailertxoarekin ekiten diote topaketari, eta horri tartetxo bat eskaini ostean, lan horiek bazter utzi eta sukaldaritza aritu ohi dira. Ez su artean, ordea; airezko bidezko frijigailuan kozinatzeo errezetak egiten ikasten ari dira. Iragan asteko saioan, adibidez, sagar kurruskariak egin zituzten, ohiko patata frijituari alternatiba emateko. Aste honetakoan, aldiz, hegaluze mokadutxoak prestatzen ikasi dute. Horren aurretik, ordea, jaki plater bat modu egokian nola oreka dezaketen ere ikasi dute.

Iradozikunak, kontuan

Aipatu tailer horiek guztiak erabiltzaileek proposatuak izan dira. Horiez gain, irteerak egiteko aukera ere mahaigaineratu dute, eta

arduradunek aintzakotzat hartu dute hori ere. Gauzak horrela, martxoan Getariara joango dira, goiz edo arratsalde pasa.

Herritarrei, gonbita

Tailer horiek astearte goizetan aurrera eramaten dituzte, 11:00etatik 12:30era, eta guztiz doakoak dira. Gaur-gaurkoz erabiltzaile gutxi batzuk bildu dituzten arren, Gurutze Gorriak herritar gehiago joan daitezkeen nahi du. Horregatik, 65 urtetik gorako lasarteoriarrak animatu nahi dituzte ekimenean parte hartzera. Ohartarazi dute erabiltzaileek ez dutela saio guztietara joateko derrigortasunik.

Hurrengoa martxoaren 11n aurrera eramango dute. Egun horretan, ordea, ez dira, ohi bezala, mihisea margotzen eta kozinatzen arituko. Teknologia berriekin lotutako hitzaldia jasoko dute erabiltzaileek; horiek hala eskatuta antolatuko dute saio hori. Baliabide teknologikoak erabiltzaile bakoitzaren etxeetan jartzeko ahalegina egiten ari da Gurutze Gorria, besteak beste, egunero hartu behar dituzten medikamentuak gogorazteko tresna egokiak direlako eta horiek erabiltzen ikas dezaten.



Herritar ugari bertaratu ziren Biyak Bat adinekoren egoitzan egin zuten aurkezpena. TXINTXARRI

Ahalik eta herritar gehienak inplikatzeko

Herri Ekimen Legegilea babesteko sinadurak jasotzen ari den herriko pentsiodun taldeak jo eta ke jarraitzen du lanean. Lasarte-Oriari dagozkion atxikimenduak jada jaso dituzten arren, gai "garrantzitsu" hori gizarteratzen jarraituko dute

Txintxarri


Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak helburu jakin bat du, hots, pentsiodunek hileko kobratutako ordainsaria eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) kopuru berekoak izatea: 1.184 eurokoak. Xede horrekin bat egindakoek Herri Ekimen Legegilea (HEL) sortu dute mugimenduarekiko atxikimendua lortzeaz gain, euren egitekoa ere plazaratzeko eta politikariaren agendetan kontu horri tokia egiteko. Horren harira, gaia gizarteratzeko ardura hartu duen talde eragileari esker zenbait ekimen antolatu dituzte berriki herrian.

Hasteko, hilaren 21ean, aurkezpen ekitaldi bat prestatu zuten Biyak Bat egoitzan. Taldeko hizlariak tar-teka hori baliatu zuten ekimenaren garrantzia aintzakotzat hartzeko, pentsiodun mor-doak hilean 850 euro edo gutxiago kobratzen dutela gogorarazi baitzuten. Ildo beretik, pertsona horien artean "hamarretik zazpi" emakumeak direla ere azpimarratu zuten. Hizketaldiarekin amaitzean, bertaratukoak edozein zalantza ozenean esatera anima-

tu zituzten, eta horri esker, publikoko gizon batek bere esperientzia pertsonala partekatu zuen. Horren ostean, sinaduren bilketari ekin zioten.

Bestalde, firmak jasotzen jarraitzeko, hiru postu jarri zituzten hurrengo egunean Lasarte-Oriari zehar; Okendo eta Elizatze plazetan, baita Ola Kalean ere. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan 10.000 sinadura bildu behar dituzte hiru hila-beteko epean. Horretarako, herri bakoitzak totalaren zati bat bere arduraren hartzen du bertako herritarrekin kupo hori betetzeko. Talde eragileko kideek esandakoaren arabera, Lasarte-Oriari minimo hori bete du. Alabaina, denon inplikazioa eskatzen dihardute eta jarraituko dute.

Pentsiodunen taldeko lagunek gogorarazi dute Herri Ekimen Legegilearen alde sinatu nahi dutenek 18 urte edo gehiago izan behar dituztela eta dokumentua izenpetzerako unean nortasun agiria erakutsi behar dutela. Horrela egin ezean, "sinadurek ez dute baliorik izango".



Aurreko bi saioen antzera, hirugarrenean ere kultur etxeko auditorioa ikus-entzuleez bete zen. TXINTXARRI

Oso arrakastatsua, hamazazpigarrena ere

Sei film labur eta dokumental luze bat ikusi dituzte XVII. Itsaspeko Zinema Zikloaren azken saiora joan diren herritarrek. Oraingoan ere, aurreko bi emanaldi egunetan bezala, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa bete dute ikus-entzuleek

Txintxarri

Oliver Bourgeois eta Emma Josefina Pettersson-en *Red Alert On Coral* film laburrak eman dio hasiera itsaspeko zinema zikloaren azken saioari. Egileek Singapurren grabatutako irudiak erakutsi dituzte, eta koralezko Arrezifeen etorkizuna planetako ekosistema baliotsu eta hausko-reenetako bat kontserbatzeko

premiaz hausnartu ahal izan dute ikusleek.

David Galvañ Fernandez-en *Raja Ampat. The last paradise*. Dokumental horren bitartez Indonesiako uharte horietako ur gardenetan murgildu dira bertaratu direnak. Horrela, urpeko bideoak planetako ekosistema dibertsitate handienetako baten bihotzera bidaiatu ahal izan dute.

Azoreetan barrena

Pepe Brix-en *A Truly Plastic Neutral Fishery* izan da erakutsi duten hirugarren lan laburra. Azoreetako flotaren bidaiaria erakustearekin batera, atunaren arrantza arduratsuaren birdefinizioa ere egin du. Horrez gain, plastikoek eragindako kutsadura ere erakutsi du, eta horrekin guztiarekin batera, Portugalgo

eremu horretan arrantzaleek euren jarduna aurrera eramateko metodo berritzaileak eta plastikorik gabeko arrantzaren aldeko konpromisoa aztertzen du filmak.

Magic of the Macroverse-ren txanda izan da gero. Alfred Schaschl-en lana da, eta giza-kiaren eta ozeanoaren arteko harreman sakona erakutsi du. Itsaspeko irudi ederrak ikusi ahal izan dituzte ikus-entzuleek, eta jabetu dira, baita ere, ozeanoa babestearren beharraz.

Shireen Rahimi-ren *Heart of the Sea* izan da ikusi duten azken film laburra. Klima aldaketaren ondorioz Bermudetan jasaten ari diren mehatxuen berri izan dute ikusleek. Proiekzio ikusgarria izan da hori.

Film luze bat, amaitzeko

Jose Hernandez eta Felipe Ravina-ren *Nika- El calderon tropical* film luzea izan da aretoan bildutakoek ikusi duten azken ikus-entzunezkoa. Tenerifeko Nika izeneko kalderoi tropikalaren irudiak erakutsi ditu. Horren bitartez, aipatu uharteko egungo egoeraren eta bertako biodibertsitatearen gaineko kezka ere azalatu dute, izan ere, eskualde horretan baitago munduko kalderoi tropikal populazio handiena.

Arestian aipatu bezala, hirugarren eta aurtengo zikloko azken ikus-entzunezkoen emanaldi saioak harrera ederra izan du, eta hori dela-eta, pozarren agertu dira antolatzaileak.

Aurtengoa amaituta, arrakastatsua izan dela ukazina den arren, balorazioa eskatu dio TXINTXARRI aldizkariak ekimenaren arduradun David Sanchez Carretero-ri; ondoko zatiduran irakur dezakezue.

Balorazioa

XVII. Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa arrakasta handiz itzuli da Lasarte-Oriara, eta itsasoaren eta zinema dokumentalaren zaleentzako ezinbesteko hitzordua gisa finkatu da. Ondoz ondoko hiru astelehenetan, zinea ozeanoaren sakonean egindako bidaiari liluragarri baten epizentroa izan da, saio bakoitzean gero eta jende gehiago bilduta. Guztira ia 500 pertsonak gozatu dute proiektioekin, beste behin ere gure jaialdiak Lasarte-Orian duen interesa eta harrera ona erakutsiz.

Herriak beti gogotsu erantzuten dio ekimenari, eta aurtun ez da salbuespena izan. Azken saioa, eta bereziana, Manuel Lekuonako auditorioa erabat bete zen, eta horrek urtez urte kalitate handiagoko edukia ekartzeko lanean jarraitzea motibatzen gaitu. Gure helburuak berdina izaten jarraitzen du: pertsona gehiagok itsas hondoen aberastasuna ezagutu eta estimatu ahal izatea, eta elkarrekin hori kontserbatzearen garrantziaz jabetzea.

Gure eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiegu aldi honetara etorri diren pertsona guztiak, baita hori posible egin duten erakundeak ere; Danok Kide eta Lasarte-Oriako Udala. Eta noski, lasarteoriatar guztiak gonbidatu nahi ditugu hurrengo edizioan gurekin egotera.

Gotzon Huegunen 'Sinkronia' erakusketa bisitatzeko aukera

Hamazazpi mural eta bost eskultura jarri ditu ikusgai; martxoaren 16ra arte dago horiek ikusteko aukera

Txintxarri

Donostiako Cristina Enea parkean jarri du ikusgai, lasarteoriatarrek, bere azken erakusketa. *Sinkronia* izenburua eman dio oraingo proiektu horri, hain zuzen ere, hainbat elementuren arteko harremana

adierazi nahi izan duelako, hala nola, gizakia eta naturaren artekoa.

Cristina Enea parkeko Mandasko Dukeen Jauregian jarri ditu bere lanak ikusgai, hiru aretotan, eta martxoaren 16ra arte izango dute interesdunek bertaratu eta


eskultorearen proiektua ikusteko aukera. Sarrera doakoa da, eta ondorengo egun eta ordutegian bisita daiteke: astelehenetik ostiralera, 09:30etik 18:00etara; larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; eta igande zein jaiegunetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara.

Erakusketa aitzakiaz hartuta, horren izenburu bera duen dokumentala ere ondu du bere alaba Haizea Huegunek, Kipi Kreate produkzio etxeko Gorka Ipiñazarekin batera.

'Zinzindurrunkarratz' eman dute zikloko hirugarren saioan

Oskar Alegriak zuzendutako *Zinzindurrunkarratz* filma izan dute hizpide Euskal Dokumentalen Zikloko azken-aurreko saioan. Ikus-entzunezko horren tripak eta zenbait bitxikeria partekatu ditu zinegile nafarrak kultur etxera joandakoekin.

Zikloa gaur (hilak 28) itxiko dute, *Itoiz, udako sesioak*-ekin, kultur etxean, 20:00etan.



Oskar Alegria, hizketan. TXINTXARRI



Oriarte Landaberrira bertaratutakoek adi jarraitu dituzte Iñaki Olaizola eta Nere Erkiagaren azalpenak. TXINTXARRI

Bizi-bizi dago heriotzaren gaia

Orain arteko borobil biribilenetako bat aurrera eraman du Borobilean Elkarteak, ez horrenbeste formaz, bai bertaratu direnen kopuruari dagokionez. Ustez tabua den gai delikatu batek lasarteoriatar ugari erakarri ditu Oriarte Landaberri institutura

Iñigo Gonzalez Sarobe

Gauza gutxi esan ditzakegu erabateko ziurtasunez, baina baten bat edo beste bai. Hau, adibidez: hil egingo gara. Guzti-guztiok, edozein modutara deklinatuta ere: haiek, hura, zuek, zu, gu, ni... Salbuespenik ez. Hori gauza segurua izanagatik, heriotzaren bueltan ugarriak dira galderak, zalantzak,

ziurgabetasunak eta beldurrak. Tabu izateraino historikoki iluna izan den gai hori zertxobait argitze aldera, hilabete honetako solasaldia horren bueltan aurrera eraman du Borobilean Elkarteak, aditu bai baina ez aritu (eta luzaroan hala izaten jarrai dezala) diren bi pertsona gonbidatuta: Iñaki Olaizola eta Nere Erkiaga. Bo-

robileaneko kide diren Pablo Barriok eta Joxe Mari Agirretxek testuinguruan jarri dute jarraian landutakoa: "Mundua mundu denetik izan da heriotza. Horrekiko erantzun eta jarrera desberdinak izan ditugu; azken mendeetan, batez ere, erlijiotik bizi izan dugu baina garaiak aldatzen ari dira eta beste modu batzuk azaleratzen ari dira;

Iñaki Olaizolak eta Nere Erkiagak esperientzia dute horretan".

Horrekin batera, eskerrak eman dizkiete Oriarte Landaberriko musika gela bete duten dozenaka herritarrei. "Garbi utzi diguzue tabua izan den eta izaten jarraitzen duen gaiak ez zaituztela beldurtu; eskerrik asko aretoa betetzeagatik", esan du Barriok. Gonbidatuetako bat aurkeztu du segidan, Iñaki Olaizola, ogibidez itsas ingeniaria izan baina jubilatuta zenean Antropologia ikasi eta doktore bihurtu zena. Ondoren, hitza Agirretxeri pasa eta berak azaldu du Erkiaga zertan dabilen: "Aitortu izan didazu inoiz ikara ematen zizula heriotzak ['terrorea', zuzendu dio aurkeztua izaten ari zenak], eta igaro zara hori sentitzetik gaiari buruzko hitzaldi, tailer eta prozesu parte hartzaileak bideratzera". Aurkezpenen txanda amaituta, adituek hartu dute hitza.

Tradizionaletik, biografikora

Heriotzari buruz hitz egiterako orduan kontuan izan beharreko kontzeptu garrantzitsuenetako bat zera da, Olaizolaren aburuz: norbera dela bere bizitzaren jabe, eta, hortaz, baita hiltzeko modua erabakitze arduradun ere; ahal badu, behintzat. Pertzepzio horren erabat aurkakoa da "hiltzeko modu tradizionala", erlijio kristauari oso lotua eta "hegemonikoa" izan dena mende askotan zehar. "Badakit gai korapilatsua dela baina ez dut tranpetan ibili nahi eta pentsatzen dudana esango dizuet. Uste dut oso krudela dela, adibidez, emaztearen amari pasa zitzaiona; beldurrez utzi zuen mundu hau, infernura joango ote zena beldur. Gure bizitzen jabe izan behar dugu eta pentsatzeko

modu horrek ez du askatasun hori ahalbidetzen".

Horren aurrean, "hiltzeko modu biografikoa" aldarrikatzen du, pertsona bakoitzaren bizitza jarriko duena erdigunean: "Ni naiz noizbait hilko naizena eta hori nik nahi bezala kudeatuko dut, nire erara".

"Beldur pila bat dago"

Heriotzaren gainean mezu positiborik jasotzen ez dugula azpimarratu du Erkiagak. "Hiltzeari buruzko esperientzia onak partekatu dituzte nirekin, asko, baina ez zaizkigu iristen. Orduan, nola heziko gara ba? Nola apurtuko dugu heriotza irudikatzen duen igitaidun pertsonaia horrekin?". Norabide horretan, iruditzen zaio mesedegarria dela gaiari buruz hitz egitea, zenbat eta gehiagotan izan ahotan, orduan eta gehiago deseraikitzen delako eraikitako beldurra. "Ariketa hori gutako bakoitzak egin behar du, noski, baina baita komunitateak ere; pertsona eta kolektiboa izan behar du". Are gehiago, azpimarratu du komunitateak ez daudela sano gai horri dagokionez, kideek ez dutelako hitz egiten, ez dakitelako zeintzuk diren beraien eskubideak. "Laburbilduz, beldur pila bat dago".

Saioa labur egin zaie bertaratutakoei. Adituen hitzartzeen ostean, elkarrekin hausnartzeko tartea ireki dute eta ideia interesgarriak bota dituzte, heriotzaren gaia bizi-bizi dagoen seinale.

**NERE ERKIAGA:
"HILTZEARI BURUZKO
MEZU POSITIBORIK
JASOTZEN EZ BADUGU,
NOLA HEZIKO GARA?"**

Izan Iñurri laguntzeko ekimen solidario bat antolatu dute

Martxoaren 8an izango da, Antonio Merceron. Parte hartzeko donazioak 20 eurokoa izan behar du gutxienez

Txintxarri

Ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik minbiziari buruzko dibulgazioa, formazioa eta akonpainamendua eskaintzen duen elkarte bat da Izan Iñurri. Gaixotasunaren ikuspuntu za-

balago bat eskaintzen du, gaia sozialki normalizatzeko eta minbiziaren inguruko mito eta tabuak desagerrarazteko.

Lan horren guztiaren garrantziaz jakitun eta eragileko kideek egiten dutena aurrera eramaten

jarraitu ahal izateko helburuarekin, dirua biltzeko ekimen solidario bat egingo dute martxoaren 8an, larunbatarekin, Antonio Mercero aretoan, 08:30etik 10:30era. Parte hartu nahi dutenek donazio bat egin beharko dute, gutxienez 20 eurokoa, aipatu elkarte horri laguntzeko. Bertaratu ezin dutenek ere lagundu dezakete; ekarpen ekonomiko hori Izan Iñurriren atari digitalean egin beharko dute. Bi yoga saio egingo dituzte Rafael Beckles eta Udane

Arrizabalaga irakasleek, hurrenez hurren. Saio irekiak izango dira edozein mailatako pertsonentzat eta Mathilde Vlieg biolontxelo jotzaileak girotuko du. Amaitzean, oroigarri bana (Tavo Designs-ek elaboratutakoa) emango die Koöl Studioko lagunek parte hartzaile bakoitzari.

Bukatzeke, gosari bat emango diete herriko zenbait ekintzailek: Kairos Lasarte, Ilargi taberna, Ore Ama obradorea eta Berasategi Kafeak-eko jabe Leire Berasategi.

Egitaraua

- Yoga saioak, Rafael Beckles eta Udane Arrizabalaga irakasleen eskutik. Koöl Studioko oroigarri bana emango die partaideei.
- Parte hartzaileentzat gosaria Kairos Lasarte, Ilargi, Ore Ama eta Leire Berasategiren eskutik.



Lasarte-Oriako Independentziara eguneko partaideek apirilko Gazteon Eskutik topaketara joateko deia egin dute. TXINTXARRI

"Zapalkuntzarik gabeko Euskal Herria" eraikitze bide bakarra

Independentzian oinarritutako lanketa aurrera eramaten ari da Ernai antolakundea azken hilabeteetan. Euskal Herriko gazte gero eta gehiagok duten askapenerako "gogo eta sen" hori apiril erdialdean gorpuztuko dute, 'Gazteon eskutik, independentziara' topaketan

Lierni A. Urdanpilleta-Iñigo G. Sarobe Independentziara eguna egin berri du Ernai Gazte Antolakundearen Lasarte-Oriako taldeak. Bertako ordezkari Xuar Agirrek TXINTXARRI-ri kontatu dionez, ez da izan gure herrira mugatuko den ekimen berezi bat, baizik eta eragile horrek Euskal Herri osoan abiatu duen lanketa orokor baten parte (75 udalerritan baino gehiagotan aurrera eramango dute jarduera hori, oinarria berbera izanda ere, bakoitzak bere egitarauarekin). Ikusi dute gazteen artean pizten ari dela askapen mugimendu horrekiko "sena eta gogo", beraz, azken hilabeteetako esfortzu eta dinamika horretara bideratu dituzte eta baita apiril erdialdean egingo duten topaketa ere, Berriozarren (Nafarroa), apirilaren 17tik 20ra: *Gazteon Eskutik, independentziara*.

Hilaren 21ean elkartu ziren herriko zenbait gazte Xirimiri elkartean, lehen aipatutako egun berezi hori ospatzeko. Independentziara egin beharreko bidez gogoetatzeko asmoz, gazteek hainbat testu ozkeni irakurri zituzten. Era berean, bertaratuakoei autodeterminaziorako prozesuaren zenbait uneren argazkiak erakutsi zizkieten, erakusketa batean: Kataluniako prozesu independentista, Altsasuko gazteekin gertatutakoa, Euskal Selekzioaren ofizialtasuna, eta abar. Ondoren, herrian barrena karropoteoan aritu ziren,

INDEPENDENTZIARA EGUNAK OSPATZEN ARI DIRA EUSKAL HERRIKO 75 UDALERRI BAINO GEHIAGOTAN

elkartera itzuli eta afaltzen hasi zirenera arte. "Eguna oso ongi joan zen eta horri buruzko balorazio positiboa egin dugu. Gainera, oraindik askoren hitz egitea falta zaigun arren, bada-kigu beste udalerrri batzuetan ere oso onak izaten ari direla erantzunak; oso pozik gaude".

Programa horretan, ordea, izan zuten aurreikusitako gabeko zerbait, izan ere, VOX alderdi ultraeskuindarrak Okendo plazan postua jarriko zuela jakin zuten eguerdian. Horren aurrean, Ernaikoek baloratu zuten eragile horrek "erantzun" egin behar diela "joera faxistak zabalitzen dituztenei". Horregatik, beste herritar batzuekin batera, manifestatu egin ziren iluntzean, enparantza horretan bertan. "Pozik gaude, agerian utzi baitugu indarra dugula VOX bezalako erantzuteko; horrelako

"Faxismoaren aurkako" aldarria

Hilaren 21ean postu bat jarri zuen Okendo plazan VOX alderdi ultraeskuindarrak. Herritar talde bat horretaz konturatu eta beraien aurka manifestatu ziren enparantza horretan bertan, *Lasarte-Oria antifaxista*.

Faxismoaren aurka borrokatu lelodun afixa erakutsi bitartean. Ekintza horretan parte hartu zuten artean izan ziren Ernaiko kideak ere, Independentziara eguna ospatu bitartean.



Manifestariak, Okendo plazan.

jarrerak ezin ditugu normalizatu, ez gure herrian, ez inon".

Apirilean, Berriozarrera

Testuinguru horretan, Ernaiko kideek tresna gisa erabili nahi dute independentzia, "faxismoaren eta neoliberalismoaren oldarraldiari aurre egin eta erantzuteko". Asmo hori apirilaren 17tik 20ra gorpuztuko dute, Berriozarren aurrera eramango duten *Gazteon Eskutik, independentziara* ekimenaren bidez, "independentzia delako zapalkuntzarik gabeko Euskal Herria eraikitze bide bakarra". Apustu "indartsua" egin dutela jakinarazi du Agirrek: "Lau eguneko topagune bat egingo dugu, eta, azkenekoan, Aberri eguna ospatuko dugu. Egun horretan ere kanpalekuan lo egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek, hortaz, aurtengoa luzeagoa eta osoagoa izango da".

Udaberrian egiten duten gazteen elkargune horrek forma ugari izan ditu urteen buruan eta aurtengoa prestatzerakoan independentzia sen eta grina horretan jarri dute fokua. Topaketa jendetsu hori erabiliko dute, besteak beste, Aitor Zelaia eta Galder Barbado Ernaiko kideen aurkako epaiketari erantzuteko: "Bi gazte soilik ez, mugimendu independentista osoa epaitu dute", azaldu du Agirrek. "Erakutsiko diegu ez daudela bakarrik askatasuna lortzeko bidean, Euskal Herri osoko gaz-

teak ere bagaudela; aldarri hori lau haizetara zabalzen ari gara azken hilabeteetan".

Lau haizetara zabalzen ari dira baita ere *Gazteon Eskutik* topaketaren egitaraua. Hitzaldiak (belaunaldi berriei zeharka edota zuzenean eragiten dieten problematika ugari landuko dituzte, hala nola etxebizitza krisia), tailerrak eta kontzertuak ez dira faltako: "Protagonismoa sortzaile, artista eta hizlari gazteei emango diegu". Programa luze eta zabal horretako ekimen zenbait azpimarratu ditu Agirrek, adibidez, Ikama ikasle antolakundeko arduradun nazionalak egingo duten solasaldia, mugimendu hori unibertsitatera ere zabaldu izanari buruz.

Berriozarrera joateko bonuak salgai jarri ditu Ernaik dagoeneko eta topaketa osorako zein jardunaldi bakoitzerako txartelak eros ditzakete interesa dutenek. Horri lotuta, Agirrek aurreratu du tematika jakin baten bueltan aurrera eramango dutela egun bakoitza: presoak, familiak... Horri lotuta, Lasarte-Oriako Ernaiko ordezkariak jakinarazi du Buruntzaldeko udalerrietako gazteak topaketara joateko autobus antolatuko dituztela eta izena ematen dutenen arabera izango direla erabiliko dituzten ibilgailuak. Txartelak erosteko egunak, tokiak eta gainerako xehetasunak aurrerago jakinaraziko dituzte. Halaber, zehaztu du asanblada ireki bat egingo dutela Xirimiri elkartean, apirilaren 4an, bi aste geroago Berriozarrera joatekoak direnekin, bertan igaroko dituzten egunetan egingo dutena antolatzeke. Hitzordu horri buruzko nondik norakoak ere datozen asteetan jakinaraziko dituzte.

AURTENGO GAZTE TOPAGUNEA LAU EGUNEOA IZANGO DA, "LUZEAGOA ETA OSOAGOA"

Afari eta bertsoaldi 'earrak' egin dituzte

Ttakunenea elkarteak bete dute Faktoria egiteasmoko eta Earra! bertso eskolako kideek elkarlanean egin duten jardueraz gozatzeko. Antolatzaileen helburua da gazteek euskaraz egin bitartean disfrutatzea, eremu informalekoak direnetan ere

Txintxarri

Sabelak bapo bete ostean logura zantzurik ez zuten izan hilaren 21ean Ttakunenea elkartearen elkartu ziren dozenaka pertsonak. Ikus-entzuleak adi eta erne mantentzeaz ederki asko arduratu ziren Earra! bertso eskolako kide Maddi Lasa, Araitz Ramos, Kattalin Lizarraga eta Leire Ormazabal. Luken Garmendiak jarritako gaietan oinarritutako euskarazko hitzak eta errimak, horiek izan ziren parean zituztenak gatibatzeko erabili zituzten lanabesak.

Euskararen unibertsoko baliabide linguistikoen aurretik erabili zituzten beste tresna

batzuk, mahaikoak, sardeskak eta labanak, plateretako jaki goxoak ahora eramateko: olibak, fueta, natxoak guakamolearekin, txerri saiheskiak labean erreta eta entsalada. Postrerako, klasiko bat, Comtesa tarta izoztua.

Bertso afaria, lankidetzan

Ttakunenea elkarteak bertso afaria Earra! bertso eskolako kideek eta Ttakun Kultur Elkartearen aisialdiko programeko bat den Faktoriako partaideek aurrera eramane zuten, lankidetzan, helburu nabarmen batekin: herritarrentzat, gazteentzat batez ere, gozagarria egitea euskara, baita informa-

lagoak eta lagunartekoak diren esparruetan ere.

Mahaien bueltan bildu zirenetako asko nerabeak zirela kontuan izanda, bertsolariak jarri beharreko gaiak adin horretako kezketan ardatz zituena Garmendiak: esate baterako, unibertsitatera sartzeko proban, selektibitatean. Hasierako ohiko nerbioak menperatu eta baretuta, gozatzeko moduko eta digestio errazeko saio polita eman zuten Lasa, Ramos, Lizarraga eta Ormazabalek. Gustura geratu ziren guztiak, antolatzaileak ere bai, eta, ondo bidean, datozen urtetan errepikatzeko asmoa dute.



Ttakunenea elkartearen batu ziren bertsozaleak. TXINTXARRI



Afalostean ekin zioten saioari bertsolariaren laukoteak eta gai jartzailleak. IKER ARTETXE


Lumakadaka eguna egingo dute Andoainen, martxo amaieran

Buruntzaldeko Transmarribolloek antolatu dute ekimena; izen ematea martxoaren 5ean itxiko dute

Txintxarri

Lumakadaka eguna aurreneko egingo dute Buruntzaldeko Transmarribolloek martxoaren 29an, Andoaingo gaztetxean. Egun osoko egitaraua izango da, goizetik hasi eta gaueko ordu txikitara arte: 11:30ean solasaldi bat aurrera eramango dute Euskal Herriko zenbait txokotako esperientzia kuirrak ezagutzeko, mahaiaren bueltan. Ondoren, kaleak hartuko dituzte *marianitada*-rekin, musikaz lagunduta. 14:30ean izango da bazkaria, gaztetxean bertan eta jolaserako tarte ere hartuko dute *Meren-doka*-rekin.

Tukanak emango die hasiera gaueko hitzorduei, 19:30ean, performance inprobisatu batekin, eta, gero, 21:30etik aurrera, kontzertu gaua hasiko da: Alu Zikinak, MJPQ, Dj Azkura... Antolatzaileek jakinarazi dute



Ekimena iragartzeko afixa bat. BUR. TR.


martxoaren 5era arte izena eman ahalko dutela bertaratu nahi dutenek, <https://my.liberaforms.org/buruntzaldea-kuirra-lumakadaka> estekaren bidez. "Zorroztu zuen lumak eta Andoainen ikusiko dugu elkar!", adierazi dute.



TXINTXARRI

Bizitza eta heriotza, gogoetagai

La Dramatica Errante-k *Adiorik ez* antzezlanaren aurkeztu du kultur etxean. Norbere mugak gainditzea, samurtasuna eta gizatasuna. Maria Goicelaya zuzendariak familia baten bizipen gordinak alaba eta aita batek egindako Donejakue bidearen zenbait unerekin tartekatu ditu bizitzari eta heriotzari buruz gogoetatzeko. Sei pertsonaiak baliatu da; sei ikuspuntutik, sei bizimoduz.



Dokumentalen ataria. BIZIPOZA

Mikrodokumentalen sarea osatzen ari da Bizipoza elkarteak

Gaur-gaurkoz 38 eragilek osatzen dute Bizipoza elkartearen sarea, bai fisikoa, bai digitala. Komunitate horretara batzen azkenak Marea Urdina eta Izan Inurri izan dira, eta, Bizipozako kideek iragarri dutenez, horien jarduren berri emateko mikrodokumentalak egin eta beraien atarira igo dituzte dagoeneko. Lan horiek <https://elkartek.bizipoza.eus/> atarian daude.



Urtero bezala, bertso eta literatura zaleek leporaino bete zuten Xirimiri elkartea. TXINTXARRI



Unai Iturriaga idazleak jarri zizkien gaiak hiru bertsolariei. TXINTXARRI



Primeran pasa zuten Lujanbiok, Labakak eta Alberdik. TXINTXARRI

Algara artean, 10 urte bete ditu bertso saio literarioak

Hamargarren urtez, lagun eta otordu artean, bertsoez gozatzeko tartea eskaini dute Xirimiri Elkartearen baitan. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi aritu dira bertsoan, ohikoa bilakatu denez; Unai Iturriaga idazleak jarri dizkie gaiak

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Irakurle Txokoak hamargarrenen egin zuen bertso saio literarioa hilaren 22an. Hamarkada batez, lagun eta otordu artean, bertsoez gozatzeko tartea eskaini izan dute Xirimiri Elkartearen baitan. Pandemian, hutsunea izan zen, eta 2022koan, publikoak ez zuen aurretiazko jakirik izan. Hala ere, aurrean betiko legez aritu dira Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio. Unai Elorriaga idazleak jarri zizkien gaiak.

Istorioren ezagunak eta ezezagunak. Liburu klasikoak mintzagai izan direlarik, hiru bertsolariak erabateko askatasunarekin jardun ziren. Ezusteko bideak aukeratu zituzten, eta, bestelako ikuspegietatik begiraruta, kontakizunak bihurtitu. Entzuleek gustora jaso zuten eurek kantatutakoa, barrezka eta txaloka aritu baitziren 90 minutuz luzatutako saio osoan

zehir. Orobat, bertsolariek narraitutakoa tentuz aditu zuten, isil-isilik izan ziren bertsoak barneratzeko.

Aurreko urteetan gertatutakoaren antzera, Xirimiri Elkartea bete egin zen. Irakurle Txokoak salgai jarritako txartelak: agortuta. Eserita, zutik edota paretari itsatsita, publikoak angulurik egokiena lortu nahi izan zuen saioa hartzeko. Hasierako agurran, hiru bertsolariek (Labakak, Alberdik eta Lujanbiok) saioaren hamargarren urteurrenari erreferentzia egin zioten, baita denbora horretan, bertso-

**LIBURU KLASIKOAK
GAI GISA IZANDA,
ERABATEKO
ASKATASUNEZ
JARDUN DIRA HIRUAK**

lariek eta ikus-entzuleek sortutako "korpusari" ere. Ondoren, hitzez eta doinuez osatutako altxorra ireki zuten.

Elorriagak aukeratutako lehenengo liburua Paul Mccarthy-ren *Errepidea* izan zen. Mundua suntsiturik da, eta Alberdi da azken biztanlea. Alabaina, ezustean, Labaka ere bizirik bada. Lagunak ala etsaiak, bi bertsolariak testuinguru hartan, nolabaiteko bigarren genesian, adiskideak izan ziren. Adanik gabeko bi Eva. Jarraian, Herbert Rosendorf-en *Antzinako Txinako Gutunak* hizpide, Lujanbio martxan jarri zuen gai jartzaileak. Hernaniarrari XIX. mendeko neska baten papeira egotzi zion. Hark, denbora makina bati esker, garai hartatik hona bidaiatu zuen, eta Labaka hura laguntzen saiatu zen. Abiapuntu horretatik jarraituta, bertsolari lasarteoriatarak "jendar-

te" euskalduna zer den kantuz azaldu zion.

Hirukotea, gerora, infernura jaitzi zen Danteren nobela tarteko. Horren ostean, ausazko hildako pertsonaia historiko bihurtu ziren Irene Sola kataluniarraren *Nik kantatu eta dantzatu egiten du mendiak* liburuaren omenez. Bakoitzak aukeratu zuen bere papeira. Frida Khalok, Bixentak eta Maria Cristinak elkarrekin topo egin zuten spa batean. Bertsolariek elkar zirikatatu zuten publikoaren gozamenerako. Umore bera plazaratu zuten Moliere idazle frantsesaren *Gaixo imajinarioa* egoztean. Izan ere, bakoitzak bere "gaitzak" zintzoki abestuz, halako batean, Lujanbiok potorik egiteak sortutiko antsietatearekin eta bazkarian jandako elikagai mordoarekin jolas egin zuen: "Haizea ere falta det alboko errejan / Zenbat gauza serbitu dituzten bandejan / Urdailak minez daukat, ziztaka ta kejan /

**HITZ ETA ERRIMA
ARTEAN, ALBOKOEI
AIPAMEN POLITAK
EGIN DIZKIETE
BERTSOLARIEK**

Postrea txarra zegoen, nahiz ta ez deten jan". Antsietate horren aurrean, Labakak eta Alberdik bertsolariaren adorea eta trebeziaren inguruko zenbait bertso egin zituzten.

Aldarrikapenak eta goraipatzeak

Bertsoka eta algaraka ari zirela, hiru bertsolariek albokoari aipamen politak egin zizkiete bakoitzaren gaitasuna laudatzeko. Bakarka eta Mary Shelley-ren *Frankenstein* kontakizuna eskuartearen, Labaka berrantolatatu egin zen gorputzeko zati berriak batuta: "Nik transplantatu nahi nuke bi hauen burmuina" abestu ziren bere kideei. Politikari buruz hitz egiteko tartea ere izan zuten Mr. Hyde eta Jekyll doktorea pertsonaiekin aritzean, eta munduko deabrueri hainbat bertso eskaini zizkieten.

Elorriagak bere lana amaituta, bertsoan segitu zuten hiru bertsolariek bakoitzari okurrutako gaiekin. Ondoren, publikoaren txalo zaparradarekin amaitu zen saioa. Entzundakoa oraindik fresko, ikus-entzuleek euren artean komentatu zituzten esaldi eta pasarterik gustukoak.

Atleta gazteek, domina uzta Euskadiko lehian

16,18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketa lehiatu dute herriko atletak. Ostadar SKTko Eider Redondo eta Oinatz Almagro zein Atletico San Sebastian-eko Hodei Murgiondo podiumeko lehen mailara igo dira. Ez dira herritarrek lortu dituzten domina bakarrak izan

Txintxarri

Lasarte-Oriako atleta gazteek 16, 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketari aurre egin zioten hilaren 22an eta 23an. Donostiako Antonio Elorza belodromoan, besteak beste, Ostadar SKT hamasei kide, Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo eta Real Sociedad taldeko Alex Alkain herritarrek parte hartu zuten. 16 urtez azpiko zein 20 urtez azpiko lehiatan ederki jardun ziren atleta gazteak eta guztira hamar domina batu zituzten herriko ordezkariak. Ikusi koadroa.

Horiez gain, hainbat kirolari podiumetik gertu izan ziren edo bere marka ondu zuten. Hala nola, 16 urtez azpiko 600 m. proban Ostadar SKTko June Iruretagoyena laugarren izan zen eta 20 urtez azpiko mailan June Garcia bosgarren sailkatu zen jauzi proban eta taldekide Asier Elvirak (10,86 m.) bere marka pertsonala berri zuten jauzi hirukoitzean.

Bestelako probak

Lezo, Irun, Antzuola, Ormaiztegi, Ibaeta, Sevilla, Bartzelona, Valladolid... Errepidean zein mendian luzera ezberdinetako lasterketan ibili dira herriko ordezkariak korrika.

Hilaren 23an, esate baterako, Bidasoako Maratoi erdia eta 10 kilometroko proba jokatu zituzten Behobia eta Irun artean.

Proba luzea Mikel Ubegun (01.25.05) eta Mari Carmen Olaso (01.39.13) herritarrek igaro zuten. Olasok bere marka ondu eta 45 urte baino gehiagoko emakumeen artean laugarren izan zen.

10 kilometroko proban, aldiz, Julen Ormazabal izan zen herritarrik azkarrena (35.40).

Astebete lehenago, Medina del Campoko (Valladolid) Maratoi erdia egin zuten Olasok eta F-55 mailako podiumera igo zen bigarren sailkatu gisa.



Murgiondo, Redondo eta Almagro, podiumeko gorenean. J. MURGIIONDO/G. REDONDO/O. ALMAGRO

Eider Redondo (-16)

- 60 m. hesi lasterketa - 1º
- Jauzi hirukoitza - 1º
- Pius jaurtiketa - 2º

Hodei Murgiondo (-16)

- 60 m. hesi lasterketa - 1º
- Pertika - 1º
- Jauzi hirukoitza - 2º

Oinatz Almagro (-20)

- Jauzi hirukoitza - 1º

Iraia Alkorta (-20)

- 60 m. lasterketa - 2º

Aitor Eizagirre (-20)

- Pisu jaurtiketa - 2º

Irati Gallego (-16)

- 600 m. lasterketa - 3º

75 bat herritar, 35. Lilatoian

Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dugu. Horren inguruan hamaika ekimen antolatzen dira eta Donostiako kaleak betetzen dituen Lilatoia izan ohi da horietako bat.

Inauterik tarteko, hilaren 23an, jokatu da aurten emakumeak ahalduntzea bilatzen duen ekitaldia. 5.322 emakume bete dute Donostia eta horietako 75 bat Lasarte-Oriako herritarrek edo herriko talde bateko kideak izan dira.

35. Lilatoia jokatu zen igandean Donostian. Goizetik iluntzera arte erdialdeko kaleak musika, erritmoz eta aldarriez bete ziren. Aurten ez da marea

morerik izan, beltza izan da nagusi; baina horrek ez du hilaren 23an egiten zuen eguraldi paregabea edo ekimenaren nahia ilundu.

Zunba dantzatzuz beroketa egin eta irteera puntura hurbildu ziren korrikalari guztiak. Lehenak ateratzen esku bizikletako kideak izan ziren; horietako bat Ostadar inklusioa taldeko Ane Asensio Telletxea izan zen (28.16).

Bost minutu geroago atera ziren gainerako parte hartzaileak eta taldeka, bikoteka edo bakarka ibilbideko bost kilometroak egin zituzten. Helmugaratzen lehena Itziar

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Elgoibar CD - Ostadar SKT
Igandea. 16:30. Mixeta, Elgoibar.

GORENGO MAILA

Orioko FT - Ostadar SKT
Ostirala. 21:00. Mendibelz, Orion.

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

Ostadar SKT - Orioko FT B

Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunea.
Vasconia CD B - Texas Lasartearra CF
Igandea. 11:30. Puio, Donostian.

JUBENILEN GORENGO MAILA

Ostadar SKT - Lagun Onak CD B
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

J. I. MAILA, IGOERA

Zarautz KE C - Texas Lasartearra CF B
Larunbata. 10:00. Asti-biki, Zarautzen.

J. I. MAILA, KOPA

Texas Lasartearra CF - Astigarragako Mundarro FKE B
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunea.

J. I. MAILA, UDABERRI KOPA

Ostadar SKT C - Idiazabal KE B
Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean.

K. I. MAILA, UDABERRI KOPA

Danena KE C - Ostadar SKT C
Larunbata. 11:00. Elbarrena, Zizurkilen.

INF. I. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA

Texas Lasartearra CF - Orioko FT B
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

SASKIBALOAIA

II. MAILA

Luberri Baserria KMO - Ostadar SKT
Ostirala. 19:45. Antigua Luberri BHL, Donostian.

III. MAILA

Astigarragako Mundarro KE - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Astigarragako kiroldegian.

EUSKAL LIGA, KADETEA

Ostadar SKT - Easo Basket Gamma
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - TAKE Orbinox
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol

INFANTIL PARTAIDETZA TXIKI

Ostadar Beltza - Arri BKL Pagoeta
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Plastigaur - Ostadar Urdina
Larunbata. 09:30. Allurralde kirol., Andoainen.

BOLEIBOLA

KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA

Lizardi Bat - Ostadar SKT A
Larunbata. 09:15. Lizardi BHL, Zarautzen.
Usurbil - Ostadar SKT B
Larunbata. 09:30. Oiardo kirol., Usurbilen.

PILOTA

TRINK., NAG. II. MAILA, FINALERDIA

Intza (Solano) - EPLE
Larunbata. 15:30 (1. partida). Ametsa tr., Iruan.

ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA

Añorga 2 - Intza
Ostirala. 17:30 (2. partida). Añorga, Donostian.

ESKUZ BINAKA, ALE. II. MAILA

Izurun 3 - Intza
Ostirala. 20:00 (3. partida). Ibaeta, Donostian.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Gipuzkoa Sortzen - Gaztedi RT
Igandea. 11:00. Asti, Zarautzen.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

IZARRAK TORNEOA

LOKEko Saioa Boyero, Paula Martinez eta Kadete B taldeko gimnastek Izarrak torneoan parte hartuko dute.
Larunbata. Goiza. Barakaldo, Bizkaian.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Herriko atletak 16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan izango dira lehian.

Larunbata. 15:30. Antonio Elorza belodromoa, Donostian.



Asensio (ezker) eta Tolosa (eskuin), helmugan. IRUTXULUKO HITZA/JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

Ibarbia Urrutia izan zen (18.33). Lasarte-Oriako kirol arloari dagokionez, marra igaro zuen lehen aurpegi ezaguna Trinko eta Buruntzaldea IKTKo kide

Istaso Tolosa Larrañaga hernaniarra izan zen (22.02); proba osatu zuen lehen herritarra, aldiz, Elisabeth Flores Guisado (25.35).

Maila igoera eskuan, Ostadar finalaren bila

Ostadar Boleibola ataleko Euskal Liga taldeak Getxoko Aixerrota garaitu eta I. mailarako igoera eskuratu du. Martxoaren 8an, liga izango du jokoan Maialen Chourraut kiroldegian jokatuko den finalean; D'Elhuyar ekipoa izango du aurkari

Txintxarri

Intentsitate handiko boleibol partidaz gozatu zuten hilaren 22an, arratsaldean Maialen Chourraut kiroldegira hurbildu ziren zaletuek. Ostadar SKT eta Getxoko Aixerrota taldeek I. mailarako igoera eta finalerako txartela zuten jokoan eta borroka ederra izan zen kantxan.

Asier Acuriola Ostadar SKTko prestatzaileak azaldu duenez, sarean irabazi zuten Ostadarrek neurketa: "Getxoko Aixerrota taldeak sake gogorrek egin zituen eta neurketan zehar hainbat izan zuten kontrolatu ezin izan genituen baloiak. Baina horri aurre egin eta sareko erasoetan fin ibili ginen. Nahiz eta Getxok defentsa ongi mantendu puntuak gure aldeko izatea lortu genuen".

Gorabehera horiek tarteko, Ostadarrek lehen jokoan 25-18 irabazi zuen eta ostean bizkaitarrek markagailua bana berdintzea lortu zuten, 22-25. Hirugarren eta laugarren setetan



Sareko jokaldi bat. TXINTXARRI

talde urdin-beltza sendo eraso eta defentsan mantendu zen eta 25-18 eta 25-20 gailendu zen.

Era horretara, 3-1eko garaipena eta denboraldiko helburua lortu du Euskal Ligako taldeak, I. mailarako igoera.

Finala, etxean

Orain II. mailako txapelketako finala dute buruan. Hitzordua martxoaren 8an, 17:30ean izango da Maialen Chourraut kiroldegian eta Logroñoeko D'Elhuyar izango dute arerio. Lehen fasean neurketa bakarra galdu zuen Ostadarrek eta Errioxako taldearen aurka izan zen. Neurketa zaila izango da Acuriolen hitzetan, "D'Elhuyar taldea indartsua da eta iaz lehen mailan jokatu zuen. Talde orekatua du erasoan eta, batez ere, defentsan bikain dabilzan jokalariekin. Ligan etxean irabazi genien eta Logroñon galdu egin genuen. Finalean gure jokalariek maila ona erakutsi eta euren indargu-neak ahuldu ahal izatea espero dugu".

Nahiz eta txapelketa ez eskuratu, igoera eskuan du Ostadarrek eta hurrengo denboraldian Euskal Ligako I. mailan jokatuko duen talde gipuzkoar bakarria izango da.

dizaleen taldeetan sortutako adiskidetasunaren gorazarre izan nahi du", Azacetaren hitzetan.

Egileak eta Burcioren lagunek parte hartu dute lana ontzen eta berarekin 50 urteetan batutako bizipen eta pasadizoak partekatu dituzte, hala nola, Euskal Herriko mendietan, Pirinioak, Moncayo, Alpe, Atlas, Aconcagua edo Himalaya aldean jazotakoak.

Azacetaz gain, Alex Tetuan herritarrak ere parte hartu du liburuan eta hainbat herritarrekin batera sortutako *Likken* aldizkariri ere egiten zaio erreferentzia.

Liburuaren salmentaren egile-eskubideak SOS Himalaya - Iñaki Ochoa de Olza Fundazio- ra bideratuko direla ere jakitera eman du egileak, zehazki, Himalaian Makaluko ospitala eraikitzeko.


Mendiko oroitzapenak eta adiskidetasuna biltzen dituen lana

Antxon Burcio mendizalearen omenezko liburua ondu du Txusma Perez Azaceta herritarrak bere lagunekin batera

Txintxarri

Aurten bost urte beteko dira Antxon Burcio mendizalea hil zela. Burcio mendi munduan erreferente izan zen eta bere lagun, Txusma Perez Azaceta herritarra eta idazlea barru, *The Mountain Family* liburua ondu dute. Liburuan 50 urtetan bizitako mendi istorioak aurkezten dituzte.

Txusma Perez Azaceta herritarrek liburu berria argitaratu berri du, *The Mountain Family*. Antxon Burcio mendizalearen omenezko kontakizun liburua da eta "men-



Liburuaren azala. T. PEREZ AZACETA

Buruntzaldea IKTko infantilak, jardun ona Euskal Herriko lehiari

Amaiur eta Itxaso Iparragirre igerilariak Euskal Herriko txapelketan parte hartu dute euren markak onduz

Txintxarri

Infantil mailako Euskal Herriko Neguko txapelketa lehiatu zen hilaren 22an eta 23an, Irunen. Buruntzaldea IKTko bi ordezkari izan ziren uretan lehiaketan: Itxaso eta Amaiur Iparragirre. Bakoitzak 15 urteko mailako bina proba egin zituen eta ederki jardun ziren euren markak onduz.

Amaiurrek 100 m. lau estilo (01.19,11) eta 1.500 m. libre (21.05,53) saioak egin zituen eta bietan hobetu zuen bere marka. Lehen proban gainera laugarren sailkatu zen. Bigarren probari dagokionez, "sekulako gogoia eta ausardia erakutsiz; harro egoteko moduko esfortzua egin" zuela nabarmendu dute igeriketa taldeko arduradunek.

400 m. libre eta 200 m. bizkar probei egin ziren aurre Itxasok. Lehenean "igeri egiteko eta probari aurre egiteko modu egokia erakutsi" zuen prestatzaileen aburuz eta ondorioz, marka pertsonala egin zuen (05.49,98); bigarrenean, aldiz, ezin izan zuen markarik berri.

Igeriketa taldeko arduradunak pozarren daude kirolari gazteek egindako lanarekin. "Igerila-



Amaiur eta Itxaso. BURUNTZALDEA IKT

rientzat ikaskuntza polita izan zen eta lan egin ondorengo emaitzak ikusi ziren gainera", adierazi dute.

Lehiaketarik ez

Hurrengo bi asteburuetan, Buruntzaldea IKTko igerilariak ez dute lehiaketarik izango, baina atsedeen ere ez. Martxo-ko hitzorduak prestatzen izango dira guztiak. Neguko ligako azken jardunaldia, alebinen zein benjaminen jardunaldiak eta mimo handiz prestatzen ari diren Gipuzkoako klubuen kopari egin beharko diete aurre igerilariak.



LOKE JUDO

Aristegi, podiumean bigarren

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Suhar Aristegi judokak junior mailako Espainiako txapelketako iparraldeko sektorea lehiatu zuen hilaren 22an, Iruñean. LOKEko judokak 90 kilo azpiko mailan egin zuen borroka eta bigarren postuan amaitu zuen lehia. Horri esker, martxo amaieran izango den Espainiako txapelketarako txartela eskuratu du judokak.

Beltzek Espainiako txapelketa lehiatuko dute

Euskadiko Ligako jardunaldi erabakigarria jokatu du 18 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak, Atsobakar kirol gunean. Getxo garaitu du ekipo beltzak eta puntuei esker, Espainiako txapelketa jokatzeko sailkatu dira jokalaria gazteak

Txintxarri

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeko 18 urtez azpiko gazteak denboraldi ederra ari dira egiten. Lehen fasea lehen postuan amaitu ostean, orain Espainiako txapelketarako sailkapena eskuratu du. Getxo RTren aurka neurtu zituen indarrak beltzen gazte taldeak, hilaren 22an, Atsobakar kirol gunean eta 31-12 irabazi zuen.

Neurketa borrokatuaz gozatu zuten kirol gunera hurbildu ziren zaletuek. Beltzak RTko harrobiko Lander Zabala, Efrén Real, Eneko Sanchez eta Joanes Arroyo herritarrak hamabostekoan izan ziren eta garaipena eskuratzeko ederki borrokatu zuten.

Bizkaitarrak entsegu eta gauzate batekin aurreratu ziren arren, beltzek azkar berdindu zuten markagailua eta erasoan jarraitu zuten, aldea irekitzeko.

Lanak fruitua eman zuen eta Eneko Sanchez herritarraren entseguak gauzate eta zigor kolpe bat izan zituen ondorio. Beltzek ez zuten aukerarik galdu aldea irekitzeko, 17-7.

Lau minutu geroago, gainera, markagailua handitu zuten etxekoek Sanchezen bigarren entsegu eta beste gauzate batekin.



18 urtez azpiko taldea eta prestatzaileak, neurketa amaitzean. BELTZAK RT

Era horretara, 24-7 amaitu zen lehen zatia.

Bigarren zatian, aldiz, apenas izan zen punturik. Bi taldeek defentsa lan handia egin zuten eta metroak lortzea zail izan zitzaizkien. Hala ere, beltzek beste entsegu eta gauzate egin zuten eta aurkariak entsegu bat.

Partidako azken txistua jotzearekin batera, talde beltzeko jokalaria, prestatzaile zein senideek ederki ospatu zuten garaipena eta sailkapena.

Apirilean, lehia

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeko kideek hitzordu garran-

tzitsua prestatzeko lanean jarraituko dute.

Espainiako txapelketa apirilean zehar jokatu da. Lehen asteburuan, hilaren 5ean eta 6an, multzoen lehiari egingo diote aurre beltzek. Zehazteke dauden lau egoitza ezberdinetan erkidego ezberdinetako launa talde bilduko dira euren multzoko lehen izan eta finalerdietarako sailkapena eskuratzeko.

Apirilaren 12an eta 13an finalerdiak izango lirake eta finala hil horretako 26an edo 27an lehiatuko litzateke Valladoliden Torneo Nazionalarekin batera.

bakoitzean bosna probaz gozatu dute zaletuek. Hitzordu guztiak goizez jokatu dira, 11:00etatik aurrera.

Sariei dagokionez, guztira 175.00 euro banatuko dira eta irabazleen sari ekonomikoa 4.550 euro eta 6.000 euro artekoa izango da. Horrez gain, sariak banatzerakoan lau jardunaldi horietan bi berrikuntza izango dira: lehen zatiko handikapen garaileek 5.500 euroko saria izango dute eta proba guztietan bosgarren sailkatuak ere jasoko du dirurik.

Euskal Ligako taldeak ezin izan du Dinteco Araba garaitu

Ostadar Saskibaloia saileko taldeek ez dute jardunaldi oparoa izan; bi taldek bakarrik lortu dute garaipena

Txintxarri

Ostadar Saskibaloiko Euskal Ligako Kadete taldea maila berrira ohitzen ari da. Urtarrilean Euskadiko mailarako jauzia egin zuen Jonatan Reinok zuzentzen duen taldeak, lau jardunaldi jokatu ditu eta nahiz eta neurketak ederki borrokatu, ez du aldeko emaitzarik izan oraindik.

Laugarren jardunaldian, hilaren 22an, Dinteco Araba izan aurrez aurre Maialen Chourraut kiroldegian eta arabarrak 46-67 gailendu ziren.

Lehen minutuetan aurkaria aurreratu arren, markagailua berdintzea lortu zuten etxekoek.

Erasoak eta saskiratzeak txandakatzen joan ziren, baina aurkariak bost puntuko aldearekin amaitu zuten zatia.

Tamalez, tarte txiki hori pixkanaka handitzen joan ziren arabarrak gainerako aldietan.

Bigarren zatian bi hiruko saskiratzeri esker, 11-18ko partziala egin zuten.

Hirugarrenean eta laugarren zatian, defentsa gogortu eta pertsonaleko marra izan zen protagonistetako bat. Baina etxeko taldeak ez zituen marratik izan-



Ostadarreko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

dako aukerak ongi baliatu eta 12-17 eta 10-14 partzialekin arabarrek garaipena eskuratu zuten.

Bi garaipen bakarrik

Emaitzen aldetik ez zen asteburu ona izan Ostadar Saskibaloia ataleko gainerako taldeentzat ere. Kadete Errendimendu Zilar eta Infantil Partaidetza Haundiko Ostadar Urdina taldeek bakarrik eskuratu zuten garaipena. Kadeteek 37-46 irabazi zuten Oiarso SKT Erreterian eta txikiak, aldiz, 51-44 gailendu ziren etxean.

Udaberriko denboraldia apirilean jokatu dute Hipodromoan

Goizez lehiatuko dituzten lau jardunaldik osatzen dute denboraldia; guztira, hogeita lasterketa lehiatuko dira

Txintxarri

Espainiako Jockey Klubak Donostiako Hipodromoko udaberriko lasterketan programa onartu zuen hilaren 20an. Apirilean jokatu da denboraldia eta lau jardunaldik osatuko dute egitaraua.

Apirilean zaldi lasterketen zaletuek berriro ere lehiatzeko aukera izango dute Donostiako Hipodromoan. Udaberriko denboraldia hil horretako 2an, 9an, 17an eta 23an izango ditu jardunaldiak eta guztira 20 lasterketa izango dira; saioa



JJ PORTOS

Goenaga garaile, ligako saioan

Distantzia luzeko Gipuzkoa zein Espainiako txapelketen ostean, Arabarako Legutio herrira bidaitua ziren hilaren 22an Gipuzkoako Aulki Mugikorreko ligako lehiakideak bigarren jardunaldia jokatzera. Josetxo Fernandez Vaqueriza arraun eremuan maila ezberdinetako lehiak izan ziren eta 2x junior mailan Nahia Goenaga Sarobe herritarra izan zen lehiari Donostia Arraun Lagunak-en ontzian. Ane Villagarcia Hornekin batera 2.000 metroko ibilbidea egin zuten, 08.10,80 eta lehen postua eskuratu zuten.



Euskadiko txapelketan parte hartu zuten kideek zirkuitu ezberdinak burutu zituzten senide eta lagunuen animoen artean. TXINTXARRI

Indar, gogo eta ilusioz betetako txapelketa

Gurpil aulkiko Euskadiko Eslalom txapelketa lehiatu da Michelin kirol guneko areto futbol pistan. Ostadar Inklusioa eta Kemen elkarteko hamalau lehiakide izan dira nor baino nor proba ezberdinetan euren onena eman eta markak ontzeko

Txintxarri

Kirol Egokituen Euskadiko Federazioak beste behin Lasarte-Oria aukeratu du gurpil aulkiko Euskadiko Eslalom txapelketako egoitza modura. Hilaren 22an, Michelin kirol guneko areto futbol pistan gauzatu zen lehiaketa eta ilusio, indar eta esfortzuz bete zen gunea.

Ostadar Inklusioako zein Kemen taldeko kideak batu ziren; guztira, hamalau kirolari izan ziren lehian. Lau maila ezberdinetan (WS1A, WS2M, WS4f eta WS5F) jardun arren, guztiek proba berak burutu zituzten erlojupeko lasterketa eta banakako eliminazioa. Lehen proban, gainera, zirkuitu finkoa egin ostean,

parte hartzaileek bide aldagarri bati egin zioten aurre.

Kirolariak kantxako alde batean euren txandaren zain egon ziren eta lehiakideen jarduna adi-adi jarraitu zuten. Behin irteera puntura iritsita, ikusleen animo eta txaloen artean gazteek euren onena eman zuten bideko probak kontu handiz gainditu

eta zirkuitua ahal zuten azkarren eginaz.

Proba eta proba artean, gainera, Ostadar Inklusio taldeko Javi Camacho entrenatzaileak gazteei jarraibide eta aholkuak eman zizkien. Ura edan, mokadutxo bat egin eta indarrak berreskuratzeko aukera ere izan zuten.

Marka bila

Lagun artean arratsalde ederra igarotzeaz gain, lasterketa ezberdinetan lehen postuetan izan ziren Ostadar Inklusio taldeko kideak. Eta markak ondu edo eskuratu ahal izan zituzten kirolariek, hala nola, Espainiako txapelketarako gutxienezko markak eskuratzeko baliagarria zen proba.

Arrisku egoerak ekiditen

Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko kideek hilaren 22an eta 23an Pirinotako Bachimañako iboietara (Huesca) egin zuten irteera berezia. Elurretan goi-mendian ibiltzeaz gain, lehen egunean Bachimañako lakuetara igo ziren taldeko partaideak, neguko mendi-irteerak prestatzerakoan zer alderdi hartu behar dituzten kontuan aztertu ahal izan zituzten gidari akreditatu baten eskutik hala nola, ibilbidearen plangintza, eguraldiaren eta elurraren iragarpenak interpretatzea edo eraman beharreko materiala. Horrez gain, pioleta eta kranpoiak edo elur-jauzietarako material berezia erabiltzen ere ikasi zuten irteeran parte hartu zuten kideek.

Bestalde, mendi elkarrekin gogorarazten du lbarrako Bidebur Klubaren laguntzarekin, eski irteera bat antolatuta duela martxoaren 8an eta 9an Canfranc Haranera. Izena ematea martxoaren 1ean itxiko da. Informazio gehiago eta inskripzioa euren webgunean.

Ez da martxoko ekimen bakarra izango, martxoaren 21ean, *Sumendien etorbidea* dokumentala proiektatu eta egileekin hitz egiteko aukera izango dute herritarrek, Antonio Mercero aretoan.



LOTME



OSTADAR IPAR MARTXA

Urolako bide berdetik barrena

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek otsaileko ibilbidea egin zuten hilaren 22an. Bildutako taldetxoak Zumarragara bidaia egin eta bertatik Urolako bide berdea hartu zuen Azkoitira. Hamabost bat kilometroko bidea egin zuten taldeak eta inguruko ikuspegiak gozatzeaz gain, Jorge Oteiza frontoiak ikusteko aukera ere izan zuten kideek bidaiaren amaieran.

Txapelketako emaitzak

Erlojupeko proba

WS1A

- 1- Gorka Uzkudun Gurrutxaga - Ostadar Inklusioa
- 2- Markel Uzquiano Lopez de Guereñu - Ostadar Inklusioa
- 3- Aitor Aranzabal Duran- Kemen

WS2M

- 1- Ramon Dual Cortes - Ostadar Inklusioa
- 2- Carlos Gonzalez Novo - Kemen
- 3- Zarka Belastegui Macadam - Kemen

WS4F

- 1- Anara Martin Lluch - Ostadar Inklusioa

WS5F

- 1- Ane Asensio Telletxea - Ostadar Inklusioa

Kanporaketa proba

WS1A

- 1- Gorka Uzkudun Gurrutxaga - Ostadar Inklusioa
- 2- Aitor Aranzabal Duran- Kemen
- 3- Brian Mera Equiza - Ostadar Inklusioa

WS2M

- 1- Carlos Gonzalez Novo - Kemen
- 2- Ramon Dual Cortes - Ostadar Inklusioa
- 3- Zarka Belastegui Macadam - Kemen


WS4F/WS5F

- 1- Ane Asensio Telletxea - Ostadar Inklusioa
- 2- Anara Martin Lluch - Ostadar Inklusioa

ZORION AGURRAK



Arkaitz
Zorionak!
Asteleheneko ospakizunen ostean, txantxo ibili al zara? Kontuz ibili Kaxkamalarekin sutara joan zaitezke eta!



Urko
Zorionak Pottoki!! 9. garren urtebetzea iada...handitzen handitzen... Oso ondo pasa ta segi beti bezain jator! Muxu haundi bat etxekoan partetik! Muuuuak!!



Aiora
Zorionak printzesa!!! Espero dugu disfrutatzea zure urtebetzeaz. Ze nolako poztasuna zu handitzen ikustea eta zure bizitasunez disfrutatzea. Jarraitu zaren bezelakoa izaten!! Askok maite zaitugu!! Familia guztiaren partez 10 muxu pottolo!!



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

SUDOKUA

	9		2					
2	3				4			
8	5			9		4	1	2
	1			5	2	8		
	6	2		4				3
		4	3	7		2	5	
				8	1		3	5
3			4			9		
1		8					7	4
								9

Sudoku10.net

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 28	GIL
LARUNBATA, 1	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 2	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 3	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 4	KNIESE
ASTEAZKENA, 5	KNIESE
OSTEGUNA, 6	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behea, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Eskutitzak argitaratzeko

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua idaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behea), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea.

Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Trastelekua saltzen dut, 20 m2., sotoa da, Sasotetan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA
Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Externa moduan lan egiteko prest nago, 09:00etatik 16:00etara. Dokumentazio guztia eguneratuta dut. Harremanetarako, 623 72 00 61.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakaskaietako klase partikularrek emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

2. Batxilergoko ikasle bati Matematiketan laguntzeko eskola partikularrek emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zenbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatiak edo saio partikularrek emateko norbait

behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinoa edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c-ko motorra, Piaggio Liberty Beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe). Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko larruzko eserleku berogarrarekin. Funtzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagunak. Hurbiltasun-sentsorea. Aire girotua. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-rekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldu-

lekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-esekidura eta marxokoko estalkiak. Dauzkadan serieko gauza guztiak motorraren batera entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.1 saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpilleta.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julien Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Xuban Urdalleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Iñigo Ibarburu.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Inauteria

Inauteri festaz gozatuko dute herritarrek, horretarako Lasarte-Oriako Udalak, eragileetako kideek eta konpartsek prestatu duten jardueri esker. Honako hau da egun horretarako iragarri duten egitaraua:

15:30etik aurrera, herriko ikastetxeetan, Inauteri festak.

16:45etatik 18:30era, Oriarte Landaberri institutuko patioan, Euskal Inauteriak ospatzen hasiko dira: txokolate jana, dantzak, erromeria eta istorioaren aurkezpena egingo dituzte.

17:30etik 18:45era, Antonio Mercero gune alboko karpan, 9 eta 12 urte arteko gaztetxoentzako mozorro festa egingo dute.

18:45etik 19:30era, Euskal Inauterien bigarren zatia egingo dute: txantxoak Okendo plazara helduko dira, erromeria egingo dute eta Kaxkamalo gaiztoa sutan erreko dute. Bitartean, ikus-entzuleak testuinguruan jartzeko azalpenak emango dituzte antolatzaileek.

19:45etik 21:15era, Antonio Mercero gune alboko karpan, 13 eta 16 urte arteko nerabeentzako mozorro festa egingo dute.

Herriko zenbait lekutan, 15:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Omenaldia

Lasarte-Oriako EH Bilduk ekitaldia egingo du Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi hil zirela 22 urte beteko diren egunean. Herritarrek gonbidatu ditu parte hartzera. Askatasunaren parkea, 12:00etan.

MARTXOAK 1

LASARTE-ORIA Inauteria

Inauteri festaz gozatuko dute herritarrek, horretarako udalak, eragileetako kideek eta konpartsek prestatu duten jardueri esker. Honako hau da egun horretarako iragarri duten egitaraua:

12:00etan, Okendo plazan, parte hartuko duten bost konpartsetako (Jalgune, Biyak Bat, Intzak Parranda, Sasoeta Sasoian eta La Tribu) kideak elkartuko dira.



LASARTE-ORIA Inauteria

Udalerria mozorrotuko duen Inauteri egitaraua iragarri du udalak. Ostiraletik hasi, hilak 28, eta martxoaren 3ra bitarte askotariko jarduera atsegingarritan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek.

Hilaren 28tik martxoaren 3ra arte, herriko zenbait lekutan.

12:00etan, Okendotik hasita, herrian barrena kalejira egingo du Oaintxe in deu! txarangak.

12:45ean, Okendoko oholtoa gainean, aurtengo mozorro koloretsuak aurkeztuko dituzte konpartsetako lagunek, dantza egin bitartean.

14:30ean, Antonio Mercero gune alboko karpan, elkarrekin bazkalduko dute konpartsetako kideek.

16:00etan, Antonio Mercero gune alboko karpan, bazkalostea girotuko dute Ttakun Kultur Elkartearen aisialdi programetan parte hartzen ari diren gaztetxoek, Superbingoarekin.

17:15ean, Okendotik abiatuta, herrian barrena desfileatuko dute konpartsek. Haiekin batera abiatuko da furgoneta ibiltari bat, musika zuzenean emango duen DJ batekin.

19:30ak aldera, desfilea bukatzean, Okendon, bakarkako nahiz taldekako mozorro onenen sariak emango dituzte.

20:00etatik aurrera, herriko kaleak girotuko ditu Oaintxe in deu! txarangak.

22:00etatik 02:00etara, gazteentzako disko festa egingo dute Antonio Mercero gune alboko karpan. *Herriko zenbait lekutan, 12:00etatik aurrera.*

MARTXOAK 1-8

LASARTE-ORIA Erakusketa

Emakumearen Nazioarteko Eguneko kartel lehiaketako lanen erakusketa. Lanak aurkezteko epea gaur (hilak 28) amaituko dutela ohartarazi dute udal ordezkariak. *Emakumearen zentroa, goizez eta arratsaldez.*

MARTXOAK 2

LASARTE-ORIA Inauteria

Inauteri festaz gozatuko dute herritarrek, horretarako udalak, eragileetako kideek eta konpartsek prestatu duten jardueri esker. Honako hau da egun horretarako iragarri duten egitaraua: **12:00etatik 13:30era**, herrian barrena ibiliko dira Oaintxe in deu! txaranga eta LOZET elkartearen erraldoi eta buruhandiak.

18:00etan, DJ Nikok omenaldia egingo du Antonio Mercero gune alboko karpan. Bereziki adineko pertsonen zuzendutako ekimena da. *Herriko zenbait lekutan, 12:00etatik aurrera.*

MARTXOAK 3

LASARTE-ORIA Inauteria

Inauteri festaz gozatuko dute herritarrek, horretarako udalak, eragileetako kideek eta konpartsek

prestatu duten jardueri esker. Honako hau da egun horretarako iragarri duten egitaraua:

11:00etatik 13:00etara, Loidibarren pilotalekuan, 11 urte arteko umeek puzgarriak izango dituzte.

18:30ean, Okendo plazatik abiatuta, sardinaren ehorzketa egingo dute. Sardinaren lurperatzea amaitzean, LOZET elkartearen bi zezensuzko ibiliko dira Kale Nagusian barrena. *Herriko zenbait lekutan, 12:00etatik aurrera.*

MARTXOAK 6

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Emakumearen Nazioarteko Eguneko kartel lehiaketako sariak banatuko dituzte. Irabazlearen lana erabiliko dute 2026ko kartela ilustratzeko. *Emakumearen zentroa, 18:00etan.*

MARTXOAK 7

LASARTE-ORIA Antzerkia

La maja y la mona, menudo cuadro antzezlanaren emanaldia aurrera eramango dute Aroa Berrozpe eta Susana Soletto aktoreek. Sarrera doakoa da. *Kultur etxea, 19:00etan.*

LASARTE-ORIA Afaria

Afariko menuak 32 euro balio ditu eta bertaraten direnek bigarren platera aukeratu beharko dute aurretik. *Casa Humada jatetxea, 21:30ean.*

MARTXOAK 8

LASARTE-ORIA Maratoia

Zunba maratoia egingo dute pare bat orduz. Amaitzean, more koloreko botilak banatuko dizkiete parte hartzen dutenei. *Okendo plaza, 10:00etan.*

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Emakumearen Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea egingo dute. *Okendo plaza, 12:00etan.*

LASARTE-ORIA Antzerkia

Haurrei zuzendutako Amama antzezlanaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*

MARTXOAK 9

LASARTE-ORIA Kontzertua

Zero Sette Akordeoi Orkestrako kideek kontzertu bat emango dute. Historian zehar aritu diren emakume

konposatzaile zenbaiten lanak interpretatuko dituzte. Sarrera doakoa izango da.

Antonio Mercero aretoa, 12:30ean.

MARTXOAK 12

LASARTE-ORIA Zinema

Biyak Bat adineko egoitzako kideekin zineforuma aurrera eramango dute. "Feminismoa eta transexualitatea bezalako gai garrantzitsuak" landuko dituzte.

Biyak Bat egoitza, 17:00etan.

MARTXOAK 13

LASARTE-ORIA Antzerkia

Y aqui seguimos antzezlanaren emanaldia egingo dute aurrera, eta ondoren, lan horri buruzko solasaldi bat. Sarrera doakoa da.

Antonio Mercero aretoa, 19:00etan.

MARTXOAK 14

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean Querer pelikula bat emango dute. Sarrerek, 6 eurotan. *Kultur etxea, 20:00etan.*

MARTXOAK 15

LASARTE-ORIA Tailerra

Autodefentsa feminista tailerra egingo dute, nerabeentzat, euskaraz. *Emakumearen zentroa, 10:00-14:00.*

MARTXOAK 16

LASARTE-ORIA Topaketa

Emakume elkarteekideen topaketa egingo dute:

11:00etan, txupinazoa eta agurra.

11:15ean, kalejira eta pintxo-potea, Oaintxe in deu! txarangarekin.

13:30ean, bakarriketa, Bea Egizabalen eskutik.

14:30ean, bazkaria.

17:00etan, karaoketa.

Herrian barrena, egun osoan.

MARTXOAK 18

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Animalia distopikoak liburuari buruz hitz egingo dute Esti Martínez Diaz de Cerio egilearekin. Irakurle txokoarekin lankidetzan.

Antonio Mercero aretoa, 18:00etatik aurrera.



**ZUREKIN BATERA
IREKITZEN DUGU
EGUNERO,**
zure negozioa
bultzatzeko

Susperregi Berria
kortse-denda,
1930az geroztik

LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.

laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoa ipini nahi dugu,
tokiko merkataritzak gure herri eta hirietako
aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

LOKALIA laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala**
eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna
emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak
sendotzeko.



LABORAL
kutxa

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA



Lasarte-Oria

**ENTITATEEN
IZEN-EMATEA
MARTXAN!**



Eman izena
entitatea bazara
entitateak.euskaraldia.eus/parte-hartu/



Norbanakoen izen-ematea
martxoan hasiko da!

